

«Estilo guztietako musika talde asko dago Donostian»

Buenawista Prolleckzioms-ek eta KTEk antolatuta, (H)asteko hotsak jaialdia egingo da aurten bigarren bez. Sebas Pajuelorekin antolatzailearekin aritu gara.

Aitziber Iartza

Zein helburu du (H)asteko hotsak jaialdiak?

Donostiako talde gazteak bultzatzeko sortu genuen. Gero, Aste Nagusian dagoen musika eskaintza ikusita, talde handi samarren bat ekartzea ere erabaki genuen, jaialdiari indarra emateko.

Iaz egin zen lehen aldiz jaialdia. Zer moduz joan zen?

Lehenengo egunean bi talde indartsu

bildu genituen eta arrakastatsua izan zen. Beste batean ere jende andana bildu zen. Gainontzekoetan nahiko jende gutxi izan zen.

Aurten zer eskaintzen duzue?


Jendeak pixkanaka jaialdia ezagutzeko nahi dugu, helburua talde gazteak ezagutaraztea eta babestea baita. Aurten hiru talde indartsu ekartzea lortu dugu, talde ezezagunagoen onodren jotzeko. Hori ere garrantzitsua da.

Zergatik erabaki zenuten jaialdia Aste Nagusian egitea?

KTEk horrelako zerbait egin zuen, eta guk erronkari heldu genion. Hala ere, urtean behin hau egitea ez da nahikoa. Era-kundeek ez dituzte taldeak laguntzen.

Zein da Donostiako musika taldeen egoera?

Donostian estilo guztietako musika tal-



de asko dago, eta maila onekoak, gainera. Baina kontzertuak egiteko lokalak falta dira. Talde ezezagunentzat guneak falta dira. Hala ere, taldeek ere gehiago mugitu behar lukete. Donostiako taldeak oso gutxi ateratzen dira Donostiatik kanpora.

Ondo pasa festak!

Igara bidea 15 • Tel.: 943 21 99 89 eta 943 21 92 04 • DONOSTIA